

domekako kontuak

• MIKEL ARAMENDI •

Ekaineko notak nola aurkeztu

Ekainea suertatzen diren hauteskondeen eta ikasle-azterketen arteko paralelismoa egitea arrunkeria galanta ere bada, bertsolaritzan balitz epaimahaiak puntuak kentzeko erabiliko lukeen horietakoa. Talde politikoak astebetez emaitzak hausnartzen ikusi ondoren, ordea, gero eta biziago bururatzen zait ekaineko emaitza korapilotsuekin etxeratzen diren ikasleen irudia, *noten* aurkezpenerako erabiltzen ari diren estrategiengatik batik bat.

Honetan, kopiaketan bezala, infinitorearen hurrengoak izan ohi dira asmamenak eskaini ditzakeen aukerak, baina badira eredu tipiko batzuk. Notak etxera ez ematearena nahiko zaila da egungo politikoentzat, Ezker Batuaren kasuan tentagarria litzateke bestela; haren ondorengoak, ordea («ergel horrek begitan hartu nau...»), maiz aurkitzen da: «jendeak ez du gure mezua ulertu» du itzulpen politikoa.

Azterketa hauen emaitza bera baino haruntzago doa auzia, hala ere, IU/EBren kasuan: sozialistetako batzuen nabarmenkeriak aditzera eman die karreratik kanporatu nahi dituztela, besterik gabe; eta horrek berak, autoafirmazio errektiboz, sendotuko ditu zertxobait. Edonola ere, hobe du koalizioak Lizarra eta gisako axalkeria interpretatiboak utzi eta La Lineakoa bezalakoak aztertzeari ekiten badio: botuen ia 4/5ak galtzen ditu Udaletxera... GILen mesedetan.

EAJ-EArena, zaparrada ahalik azkarraren pasatu eta iraila heldu zain udara-



Ekainaren 13ko hauteskundeetan gizon bat botoa ematen.

ko bizimodua antolatzen hasten den ikasle pragmatikoaren eredutik hurbilago dago. Jeltzaleak, kanpaina *despolitizatu*egia egin dutelako damutzen diren bitartean, bi sentipenen artean kullunkatzen ari dira: nahi eta ez galduko dituzten postuen samina, eta estrategikoki irabazten ari direnaren atsegina (normalizazioa, Madrilen gehiengo ab-

solutuaren arriskua urrutiratzea, zentro-eskuineko abertzalegoaren bateraketan aurreratzea, Gorordoren desagertpena,...)

Arazoak? Bi, behintzat, berehalakoa: oposizio kulturarik eza, batez ere Araban; eta EArekiko elkarlanerako gorabehera handiak, segituan. Geroago, sozialistak bereganatu eta PP isolaturik

uzteko taktika bera ere izan daiteke endredo-iturri, EH eta sozialisten arteko harremanak normaldu ahala; baina, gero gerokoak!

Besterenaz aise mintzo

«Zer moduz joan dira azterketak?» galdeztzen zaionean urkoari irailerako geratu zaizkionez gogotik hitz egiten duenaren planta osoa egiten ari da PP: Lizarra behera, nazionalistak beherago,... Jakina, honelakoetan, galdera bigarrenegia egin dakoan hasten dira arnas-estuak: «Zeure notak nolakoak diren jakin nahi nuen...».

PPrenak txarrak dira ikuspegi gehiengotatik; batez ere, onak ateratzea erraz samarra zuelako. Oso txarrak Katalunian, etsaiek irabazi eta beraiek eta sozioek galtzen dutelako... eta hauteskunde autonomikoak udazkenean direlako. Eta paretukoak Galizian, non duela urte gutxi inori bururatuko ez zitzaion panorama politikoa antolatzen ari baita, azkar ki; eta BNGren gorakada frenatzeko hauteskundeak aurreratzea esperimendu oso arriskutsua izan daiteke.

Euskal Herriko emaitzak ere ez ditu askoz hobeak: gainbehera abiatutako joera politikoen aje guztiak dituzte. Araban botere alorrek eskuratzeak eman diezaiekeen blokeo-ahalmenak, bestalde, gogoraz behar lieke ordaina sekula baino argiago jaso dezaketela Madrilen alderdi nazionalistengandik. Beraz, hauteskunde orokorrak, noizko?

Egutegi politikoaren erdigunean galdera horixe ez balego bezala agertu nahi izan dute, astebetez. Ikusiko dugu noiz arte.

Literatura azterketa

Noren idazlanetik kopiatu du J. Solana NATOburuak iragan astean, *nazionalitarismoaren* gaiztakeria nabarmentzeko edo, oraintsu berari gertatua bezala (hori bai, non, noiz eta norekin zehaztu gabe) kontatu duen hori, alegia, beregana hurbildu eta zera esaten dion agurearena: «begira, neure bizitza osoa horko etxe horretan eman dut; bizkitartean, ordea, X (kopurua ezberdina da obra originalean eta Solanaren bertsioan) estatutako hiritarra izan naiz?»

begi-zeharka

• ANDONI EGAÑA •

Manolo Saiz

Ezinikusia

Bada kirolaren inguruan betidanik erakargarri gertatu zaidan izaera mota bat: txikitatik zela, frontoi edo errepide ertzean geratzen zen mutikoarena. Delegatu izan zitezkeen batzuk. Entrenatzaile hautatu gabeak ziren besteak. Haurrak berezkoa duen parte-hartzearen logikari ihes egiten zioten. Gaisorik zeudela uste izaten nuen txikitik. Eta asko, gaisorik zeuden, kirola jakin bat ulertu eta hobetu nahiaren amaraunean katigatuak.

Horieta bat da Manolo Saiz, txikitandik errepide ertzetik begira ohitua. Jakinekoea da kirolari erdipurdikora ere iritsi ez denak lan gehiago egin behar izaten duela gero edozein talde zu-

zentzeko, gehiago ikasi, gehiago irakatsi, gehiago erakutsi... Denetik gehiago egin behar izaten dutelako dira gero prestatuagoak, berritzaileagoak... Eta hori ez zaio hutsetik datorrenari barkatzen.

Manolo Saizengatik beti esan izan dira sekulakoak. Orain hamabi-hamalau urte, gazteen mailako Espainiako hautatzaile zela, jendea boloboloka aritzen zen. Emaitza onak erdiesten zituen errepidean, baina gazteak errebidetan zeramatzen, zukutu egingo zituen garaiz aurretik. Ez zuten asmatu kasurik gehienetan.



Aurkakorik ez duenak ez omen du lagunik. Saizek baditu orduan. *Clan* bat osatu nahi duen familia-buruaren estrategia darabil: besteekiko axola

eza nabarmena eta bereekiko babes mugarik gabea eta leialtasun handia. Bereak bere senti daitezen lortzen du beti.

Frantziako Tourrean parte hartzea galarazi diote orain, itxuraz joan zen urteko kalamatikak direla eta. Berria jakin ondoko egunotan adierazgarri zait gainerako zuzendarien oldartze epela, eta ulertzen dut. Jolasean edo jokoan ari ginenok beti begiratu izan genien ertzeko *gizontxo* haiei mespretxu ttanta batez.

Euskaltel ere ez da Tourrean izango. Tamalgarria. Euskaldun askok gozatu genukeen Frantziako maldetan bultzukada batzuk emanaz nahiz *azken-pux* izan. Joatea zen kontua. Gainera, Tourra jokatu den zalantzan jartzen duenik ere bada. Ondobiziei udako planak atontzeko arazo larriak sortuko lizkiguke horrek. Berandu jai ki, ondo gosaldutxo, hondartzara joan, txakolin batzuk edan bueltakoan, bazkaldu, siesta... Horrerartekoa ongi. Baina gero zer?